



# Jubilazioak

EAE - 2022



## Aurkibidea

<b>1. MUFACE</b> .....	3
1.1. Ohiko erretiroa .....	3
1.2. Borondatezko erretiro aurreratua .....	4
<b>2. Kidegoz aldatu diren eta, ondorioz, MUFACetik Gizarte Segurantzara aldatu diren funtzionarioak</b> .....	4
<b>3. Gizarte Segurantza</b> .....	5
3.1. Ohiko erretiroa .....	5
3.2. Erretiro aurreratua .....	7
<b>4. Erretiro partziala txandakako kontratuarekin</b> .....	8
<b>5. Genero-arrakalagatiko osagarria</b> .....	8
<b>6. Lana eta pentsioa bateratzea</b> .....	9
<b>7. Noiz hartu erretiroa?</b> .....	9
<b>8. Kontuan hartzekoak</b> .....	9
<b>9. Erretiro-pentsioak: lorpen bat, borrokan jarraitzeko erronka bat</b> .....	9

# 1. MUFACE

## 1.1. Ohiko erretiroa

### Erretiro-pentsioa eskuratzeko baldintzak:

- Adinez, 65 urte izan; kotizatuta, berriz, 15 urte, gutxienez (**oharra bukaeran**).

### Pentsioaren kalkulua:

- Gobernu zentralak urtero ezartzen du gehieneko pentsioaren muga. 2022an, 39.468,52 euroan ezarri da urteko muga –gordina– (hilabeteko 2.819,18 € ,14 ordainsari).
- Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleek oinarri arautzailearen % 100 kobratuko dute, betiere 35 urte kotizatu badituzte. Urte kopuru bera kotizatu duten Bigarren Hezkuntzako irakasleek, berriz, hartzeko arautzailea gainditu egiten dute; horregatik, oinarri arautzailearen % 100 kobratzeko, 33 urte kotizatuta izatea nahikoa da gaur egun.
- Garbian, 35 urte edo gehiago kotizatu duten maisu-maistrek 2.050 euro, inguruko 14 ordainsari jasotzen dituzte; eta Bigarren Hezkuntzako irakasleek, berriz, 2.350 euroko 14 ordainsari (PFEZ tasaren arabera). Erretiroa hartzen den hilabetean soldata osoa kobratzen da, erretiroaren indarraldia hasten den eguna aintzat hartu gabe, eta pentsioa hurrengo hilabetearen lehen egunetik aurrera hasiko da jasotzen.

Aurrekontuen legeak urtero ebazten du kidego bakoitzari dagokion hartzeko arautzailea (diru-kopuru gordinak):

2022ko hartzeko arautzailea		Urtean	Hilabetean
A1 taldea	Bigarren Hezkuntza	44.325,81 €	3.166,13 €
A2 taldea	HH eta LHko irakasleak eta Lanbide Heziketako ITak	34.885,53 €	2.491,82 €

Hartzeko arautzaileari kotizatutako urteen araberako portzentaje bat aplikatzen zaio, eta kobratu beharreko pentsioaren zenbatekoa lortzen da. Adierazi den bezala, A1 taldearen kasuan, pentsio publikoen mugatik ezin da 2.819,18 € baino handiagoa izan hilean.

Kotizatu diren urteak	Oinarri arautzailearen ehunekoa	Kotizatu diren urteak	Oinarri arautzailearen ehunekoa
15	% 26,92	26	% 67,11
16	% 30,57	27	% 70,77
17	% 34,23	28	% 74,42
18	% 37,88	29	% 78,08
19	% 41,54	30	% 81,73
20	% 45,19	31	% 85,38
21	% 48,84	32	% 89,04
22	% 52,50	33	% 92,69
23	% 56,15	34	% 96,35
24	% 59,81	35	% 100,00
25	% 63,46		

### Jardunaldi murriztua:

Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleek jardunaldi murriztuan lan egin badute urtebete baino gehiago jarraian (lanaldi laburragoek ez dute eraginik) edo urte sabbatiko bat hartu baldin badute, horri dagokion pentsioa murriztu egingo da, 35 urtez lanaldi osoan lan egin ez bada, behintzat. Bigarren Hezkuntzako irakasleen egoera bestelakoa da; izan ere, gehieneko pentsioaren muga gaindituta dutenez, badago tarterik pentsioari kalterik ez egiteko.

## 1.2. Borondatezko erretiro aurreratua

### Baldintzak:

- Adinez, 60 urte edo gehiago izatea; kotizatuta, berriz, 30 urte, gutxienez (oharra bukaeran).

Ohiko pentsioa bezala finkatzen da pentsio hori. Erretiro-mota hori eta dagokion pentsioa ez dira aldatuko, Klase Pasiboari buruzko Legea aldatzen ez bada.

2011n, Gobernu zentralak, CCOO, UGTk eta CEOEk Akordio Sozial eta Ekonomikoa sinatu zuten eta, horren arabera, MUFACEko langileen eta gainerako langileen erretiroa "parekatuko" dira; hots, araubide orokorrean, adina atzeratzen eta pentsioen zenbatekoa jaisten ari da, hortaz, gauza bera egingo dute klase pasiboetan. Dena den, hori oraindik ez da gertatu, eta Toledoko Itunak, azkenak, berdin eutsi dio erretiroari.

## 2. Kidegoz aldatu diren eta, ondorioz, MUFACEtik Gizarte Segurantzara aldatu diren funtzionarioak

2011ko abuztura arte, mutualistak izandako funtzionarioek MUFACEko aurretiazko erretiroa har zezaketen. Aukera hori bat-batean eten zen; izan ere, Madrilgo Gobernuak uko egin zion LOEren xedapen iragankor bat luzatzeari, eta ez zuen bestelako biderik bilatu aukera horri eusteko.

Orain, berriz, MUFACEn bidez erretiroa hartzeko aukera bakarra dago: lanaldi aktiboaren azken 5 urtetan jatorrizko kidegora itzultzea.

## 3. Gizarte Segurantza

### 3.1. Ohiko erretiroa

#### Erretiro-pentsioa jasotzeko baldintzak:

- Kotizatutako urteak, gutxienez: 15 urte, eta horietako 2 erretiroa hartu baino lehenagoko 15 urteen barruan (oharra bukaeran).
- Jubilatzeke adin orokorra.

**Adibidea:** 2022an 65 urterekin erretiratzeko, 37 urte eta 6 hilabete kotizatu behar izan dira, gutxienez.

- Hurrengo urteetan, gora egingo du gutxieneko kopuru horrek, mailaka: urte bakoitzeko, 3 hilabete gehiago. 2027an egonkortuko da 38 urte eta 6 hilabetetan (ikusi beheko taula).
- 65 urterekin erretiroa hartzeko kotizatu beharreko urteak betetzen ez badira, erretiroa hartzeko adinak gora egingo du, mailaka.

Erretiro-urtea	65 urterekin erretiratzeko kotizatu beharreko urteak, gutxienez	Erretiratzeko adina
2022	37 urte eta 6 hilabete edo gehiago	65 urte
	37 urte eta 6 hilabete baino gutxiago	66 urte eta 2 hilabete
2023	37 urte eta 9 hilabete edo gehiago	65 urte
	37 urte eta 9 hilabete baino gutxiago	66 urte eta 4 hilabete
2024	38 urte edo gehiago	65 urte
	38 urte baino gutxiago	66 urte eta 6 hilabete
2025	38 urte eta 3 hilabete edo gehiago	65 urte
	38 urte eta 3 hilabete baino gutxiago	66 urte eta 8 hilabete
2026	38 urte eta 3 hilabete edo gehiago	65 urte
	38 urte eta 3 hilabete baino gutxiago	66 urte eta 10 hilabete
2027tik aurrera	38 urte eta 6 hilabete edo gehiago	65 urte
	38 urte eta 6 hilabete baino gutxiago	67 urte

## Pentsioaren kalkulua:

- Pentsioaren oinarri arautzailea kalkulatzeko, 2022. urtetik aurrera, oinarri arautzailea izango da gertaera eragilearen aurreko hilabetearen aurreko 300 hilabeteetan interesatuaren kotizazio-oinarriak zati 350 egitearen emaitza.

Pentsioaren zenbatekoa oinarri horri kotizatutako urteen arabera portzentaje bat aplikatuta lortzen da. Oinarriaren % 100 kobratzeko, 2022an 36 urte behar dira, 2023tik 2026ra, 36 urte eta 6 hilabete, eta 2027tik aurrera, 37 urte kotizatuta.

Kotizatutako lehen 15 urteetan % 50 da, eta gainerako hilabeteetan ehuneko bat, taula honen arabera:

Aplikazio-aldia	Lehen 15 urteak		Gainerako urteak			Guztira		
	Zenbat urte	%	Gainerako hilabeteak	Koefizientea	%	Zenbat urte	Zenbat urte	%
2020tik 2022ra	15	50	1etik 106ra Gainerako 146ak	0,21 0,19	22,26 27,74			
	15	50	<b>Guztira 252 hilabete</b>		<b>50,00</b>	<b>21</b>	<b>36</b>	<b>100</b>
2023tik 2026ra	15	50	1etik 49ra gainerako 209ak	0,21 0,19	10,29 39,71			
	15	50	<b>Guztira 258 hilabete</b>		<b>50,00</b>	<b>21,5</b>	<b>36,5</b>	<b>100</b>
2027tik aurrera	15	50	1etik 248ra Gainerako 16ak	0,19 0,18	47,12 2,88			
	15	50	<b>Guztira 264 hilabete</b>		<b>50,00</b>	<b>22</b>	<b>37</b>	<b>100</b>

- Jasangarritasun-faktorea, pentsioa bizi-itxaropenaren hazkundearen arabera zigortzen zuena eta 2023/1/1era atzeratua zuena, 2022/1/1ean ezabatu da behin betiko, eta 2027tik aurrera belaunaldien arteko ekitate-mekanismo bat negoziatuko da.

2022rako gehieneko pentsioa MUFACE atalean adierazitakoa da: 39.468,52 € urtean (2.819,18 € hilean 14 ordainsari), eta pentsio publikoen gehieneko hori urtero adierazten da. 2022tik aurrera, pentsioa KPlaren arabera eguneratzen da. Soldata erretiro-egunera arte kobratzen da eta pentsioa hurrengo egunetik aurrera.

## Jardunaldi murriztua:

Jardunaldi murriztuak oinarri arautzailea txikiagotu dezake, baldin eta murrizketa hori erretiratu aurreko urteetan gozatu bada.

Jardunaldi murriztuak kotizazioa ere txikiagotzen du, baina murrizketa hori orekatu egin daiteke baldin eta dagokion garaian kotizatu beharreko urteak baino urte gehiago kotizatu badira edo gehieneko kotizazioa gainditu bada.

### 3.2. Erretiro aurreratua

Ohiko erretiroa eskatzeko adina bete baino 2 urte lehenago eska daiteke erretiro aurreratua, betiere 35 urte kotizatu badira gutxienez, eta horietako 2 azken 15 urteen barruan egin badira. Hala egitekotan, horrek pentsioaren zenbatekoaren gaineko zigor-koefizienteak dakartza, adina aurreratu den hilabeteen arabera, ondoko taularen arabera:

	Kotizatutako aldia: 38 urte eta 6 hilabete baino gutxiago	Kotizatutako aldia: 38 urte eta 6 hilabete edo gehiago eta 41 urte eta 6 hilabete baino gutxiago bitartean	Kotizatutako aldia: 41 urte eta 6 hilabete edo gehiago eta 44 urte eta 6 hilabete baino gutxiago bitartean	Kotizatutako aldia: 44 urte eta 6 hilabete edo gehiago
Zenbat hilabete aurreratzen da jubilaria	Murrizketaren ehunekoa	Murrizketaren ehunekoa	Murrizketaren ehunekoa	Murrizketaren ehunekoa
24	21,00	19,00	17,00	13,00
23	17,60	16,50	15,00	12,00
22	14,67	14,00	13,33	11,00
21	12,57	12,00	11,43	10,00
20	11,00	10,50	10,00	9,20
19	9,78	9,33	8,89	8,40
18	8,80	8,40	8,00	7,60
17	8,00	7,64	7,27	6,91
16	7,33	7,00	6,67	6,33
15	6,77	6,46	6,15	5,85
14	6,29	6,00	5,71	5,43
13	5,87	5,60	5,33	5,07
12	5,50	5,25	5,00	4,75
11	5,18	4,94	4,71	4,47
10	4,89	4,67	4,44	4,22
9	4,63	4,42	4,21	4,00
8	4,40	4,20	4,00	3,80
7	4,19	4,00	3,81	3,62
6	4,00	3,82	3,64	3,45
5	3,83	3,65	3,48	3,30
4	3,67	3,50	3,33	3,17
3	3,52	3,36	3,20	3,04
2	3,38	3,23	3,08	2,92
1	3,26	3,11	2,96	2,81

Erretiro aurreratuko kasu guztietan, koefiziente murriztaileak aplikatu ondoren, emaitza ezin da izan gehieneko pentsioa baino handiagoa, aurreratutako hilabete bakoitzeko koefiziente bat kenduta. 2022tik aurrera, ehuneko horiek ere gora egiten dute, baina pixkanaka urteetan zehar, eta erreformak bermatzen du tasak ezartzen diren bitartean (10 urtetan) lortzen den pentsioa ezin dela aurreko araudiarekin lortuko litzatekeena baino txikiagoa izan (0,50 aurreratutako hiruhileko bakoitzeko). Topea gainditzen den kasu horietan guztietan pentsiorik onena bermatuko da.

## 4. Erretiro partziala txandakako kontratuarekin

Lan-kontratua duten langileek erretiro partziala har dezakete, eta beren jarduna murriztu, ohiko erretiroa hartzeko legezko adina bete arte. Erretiro partzialarekin batera, txandakako kontratu bat egiten zaio beste norbaiti, lanaldi murriztua osatze aldera, eta erretiro partzialak indarrean egindako beste denbora iraungo du txandakako kontratu horrek.

**Betebeharrak:**

- Adina: ikusi taula.
- Kotizatutako urteak, gutxienez: 33 urte.
- Lanaldi osoko kontratua edukitzea eta gutxienez 6 urtez lan egin izana enpresan.

**Baldintzak:**

- Urteko jardunaldi eraginkorra % 50 murriztea.

Gertaera eragilearen urtea	Gertaera eragilearen unean kotizatutako urteen arabera eskatzen den adina		Gertaera eragilearen unean 33 urteko kotizazioa izanez gero eskatzen den adina
2022	62 eta 2 hilabete	35 urte eta 6 hilabete edo gehiago	63 eta 4 hilabete
2023	62 eta 4 hilabete	36 urte eta 9 hilabete edo gehiago	63 eta 8 hilabete
2024	62 eta 6 hilabete	36 urte edo gehiago	64 urte
2025	62 eta 8 hilabete	36 urte eta 3 hilabete edo gehiago	64 eta 4 hilabete
2026	62 eta 10 hilabete	35 urte eta 3 hilabete edo gehiago	64 eta 8 hilabete
2027 eta hortik aurrera	63 urte	35 urte eta 6 hilabete	65 urte

## 5. Genero-arrakalatiko osagarria

2021-02-04tik aurrera, genero-arrakala murrizteko pentsioen osagarria aplikatzen zaie emakumeei, ama izate hutsagatik ordaintzen baitzaie (oro har, genero-arrakalak emakumeen pentsioen zenbatekoan duen intzidentziagatik), eta gizonezkoek osagarria jasotzeko eskubidea izango dute, baldin eta alarguntasun-pentsioa eragiten badute beste gurasoaren heriotzagatik, seme-alabek edo lanbide-eskubideko pentsiorik eragin badute, edo mantenu hori etenda badute.

2022rako 28 € dira hilean seme-alaba bakoitzeko, 14 ordainsaritan. Pentsioen gehieneko zenbatekoa ez da muga bat, baina jaso beharreko zenbatekoa seme-alaba bakoitzeko hileko zenbatekoaren halako lau izango da, gehienez. Gizarte Segurantzari, nahitaezko erretiroa eta borondatezko erretiroa ez dira bereizten, Klase Pasiboetan, aldiz, bai, nahitaezko erretiroaren kasuan jasotzen da soilik; seme edo alaba bakoitzak osagarri bakarra jasotzeko eskubidea ematen du, eta bigarren gurasoari aitortzen bazaio, onartutako aurrekoa azkentzea dakar.



## 6. Lana eta pentsioa bateratzea

2022rako, erreforma berritik aurrera, erretiroaren atzerapena lehenesten da, % 4ko koefiziente gehigarriarekin erretiroa borondatez atzeratzen den urte bakoitzeko (37 urte baino gutxiago kotizatutako pertsonen kasuan, % 2 gehiago). Gehikuntza hori kapitalizatu ere egin daiteke, oroharreko prezioko zenbateko bat jasoz, biziarteko errenta gisa jasotzea baino dezente txikiagoa dena.

## 7. Noiz hartu erretiroa?

Diruaren aldetik, eta kontuan hartuta noiz hasten den bakoitza pentsioa kobratzen (ikusi 1. eta 3. atalak) eta hartu ez diren oporren ordainetan eman behar den kitapena, erretiroa udan hartzekotan, uztailaren 31 da egun egokiena. Gainerako hilabeteetan, MUFACEko langileek erretiroa hartzen duten hilean kobratzen dute ohiko soldata, pentsioa erretiroaren hurrengo hilaren lehen egunetik kobratzen baita; Gizarte Segurantzako langileek erretiro-egunetik kobratzen dute pentsioa.

## 8. Kontuan hartzekoak

Banan-banan aztertu behar dira erretiroa hartzeko askotariko aukerak, langilearen arabera; izan ere, langile bakoitzaren lan-bizitzaren araberkoa izango da hala erretiratzeko bidea nola jasoko den pentsioaren zenbatekoa.

Era berean, salbuespeneko erretiro-kasuak ere gerta daitezke, borondatezkoak ez diren lanpostu-uzteen kasuetan (arrazoi objektiboengatik azkentzeak, enpresaburuaren erretiro-heriotzak, eta abar), edo enplegu-erregulazioko espedienteen kasuetan. Espediente horiek ez dira dokumentu honetan zehazten, gure sektorean salbuespenekoak direlako, baina, halakorik gertatuz gero, kontsulta ditzakezue.

Erretiroa hartu eta gero, ITZARRIri eska dakiok pilatutakoa itzultzeko. Informazio gehiago behar izanez gero gai horri edo beste gairen bati buruz (eskaera prozedurak, epeak eta abar) jarri harremanetan **STEILAS**ekin.

## 9. Erretiro-pentsioak: lorpen bat, borrokan jarraitzeko erronka bat

Pentsio publikoei esker estaltzen dira langileen beharrian ekonomikoak, besteak beste, erretiroari esker, eta lorpen sozial horixe izugarri garrantzitsua izan da eta jendeak asko baloratu du.

**Oraingo sistema ustez ahula denez**, hainbat murrizketa ezarri, eta, gainera, kotizatze orduan eskakizun zorrotzagoak ipini dira. Aurreikuspen-sistema pribatuak sustatu dira, nahiz eta horietako asko defizitarioak izan eta defizit hori ezkututzen duten; horretarako, sistema publikoaren ospea kaltetzeko kanpainak egin dira, eta zerga-sistemak ere laguntza eskaini du. Aurreikuspen-sistema pribatuak ondo baino hobeto datozkie kotizazio sozialak jaitsi nahi dituzten enpresa handiei eta diru-baliabide horiek kudeatu nahi dituzten banketxei.

**Borondatezko Gizarte Aurreikuspen Erakundeek** (adibidez, ITZARRIk), teorian, honako hau dute helburu: sistema publikoaren prestazioak osatzea. Edonola ere, merkatu finantzarioen gorabeherek eragiten diete eta gordailuak erabiltzeko orduan iruzurra egin daiteke. Era berean, ahalik eta errentagarritasun handiena lortu nahian, gizartearen eta etikaren aurka erabil daitezke funts horiek. Horregatik, BGAEen eta ITZARRIren derrigortasunaren aurka agertzen gara.

**Pentsio publikoak solidarioak dira:** gutxieneko eta gehieneko mugak daude, ondorioz, aberastasuna birbanatzeko balio dute. Halako pentsioen kontra daudenek, berriz, pentsio pribatuak sustatzen dituzte, hots, kotizatutakoaren arabeko pentsioa ematen dutenak. Lan partziala eta/edo etena egiten duten langileen kopurua gora doan honetan, sistema pribatista horietatik kanpo geratzen dira langile asko. Eta horrek guztiak ekonomia- eta gizarte-arrakala handitzen laguntzen du.

**Euskal Pentsioen Sistema Publikoa** da gure aldarrikapena: Estatuko pentsioak Europar Batasuneko batez bestekoa baino baxuagoak dira, bai kopuruan bai BPGaren ehunekoan.

Laburbilduz, lan-bizitza amaitu osteko ongizatea eskubide bat da, ez salgai bat; eta, beraz, defendatu egin behar dugu, zerbitzu publikoak oro har defendatzen ditugunean.

**Oharra:** Erretiroa hartzeko gutxieneko kotizazio-aldia betetzen ez den kasuetan, honen berri eman nahi dizuegu: Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak epai bat eman zuen 2016ko urrian eta, horren bidez, Gizarte Segurantzari kotizatutako alditzat jo zuen Gizarte Zerbitzua (1937tik 1978ra egon zen hori indarrean), erretiroa kobratzeko ezarri den gutxieneko aldiari dagokionez.

**STEILAS, 2022**